



PRENTSAURREKOA

**XXVIII. GIPIIZKOAKO ESKOLA
TXIKIEN FESTA GABIRIAN,
EKAINAREN 14AN.**





NAGORE IÑURRITEGI, GURASO KOORDINAKUNDEKO LEHENDAKARIA

Egunon eta eskerrik asko bertaratu zareten guztioi.

Gaur, ekainak 2, Gabiriko Balentzategi Herri eskolan elkartu gara ekainaren 14an ospatuko den XXVIII. Gipuzkoako Eskola Txikien festa aurkezteko. Horretarako, mahai honen bueltan elkartu gara:

Balentzategi Guraso elkarteko Pilar Marichalar

Balentzategi Herri Eskolako zuzendaria Ane Miren Aizpuru

Gabiriko Alkatea Ibon Elgarresta

Eskola Txikien irakasle koordinatzailea Mikel Goñi

BAIKARA: Imanol Zubizarreta

Gipuzkoako Eskola Txikien Gurasoen Koordinakundea: ni neu, Nagore Iñurritegi

1991. urtean ospatu zen hemen, eskola txikien festa eta 24 urte ondoren hemen elkartuko gara berriz, urtero legez, Eskola Txikien Komunitatea osatzen dugun herri-auzokideak, festa giroan, eskola herrian edo auzoan izateak duen garrantzia aldarrikatzeko, urtero egiten dugun bezala **“ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK, HERRI ETA AUZO TXIKIAK BIZIRIK”** leloa aldarrikatzeko.

Hurrengoari hitza emango diot...

ANE MIREN AIZPURU, BALENTZATEGI ESKOLAKO ZUZENDARIA

Balentzategi eskolan 38 ikasle dabilta aurten 4 geletan banatuta. Herriaren biztanleriaren arabera, kopurua aldakorra izaten da, bikoiztu egin ginen eta beherantz egitea egokituko zaigu, baina badatoz ale berriak aurrera egiteko.

Mendea betea duen eraikuntza sendo eta bereziari bizia ematen jarraitzeko prest gaude. Gaudenak, gutxiago izan arren, elkarren artean hezitzaile eta herriarentzat bizigarri izan behar dugulako. Gure eguneroko jolastokia den plaza hau ume soinu beteta jarrai dezan nahi dugu, ikasle, irakasle, guraso, udala eta herritarrak eragile ditugula.





IBON ELGARRESTA, ALKATEA.

Gure herriarentzat eskola bizia da. Herri bizia izaten jarraitzeko, eta etorkizuna bermatzeko ezinbestekoa. Herriko haurrek Eskola Txikia herrian izatea beharrezkoa da, Kultura eta Euskara bermatzeko eta haurrak herriko giroan hazi eta hezteko.

Eskola Txiki biziak egiten baitu herri bizia!

IMANOL ZUBIZARRETA, BAIKARAKO LEHENDAKARIA

EHIGE eta BAIKARA elkarten helburu nagusietako bat da familiek eskolan parte har dezaten sustatzea. Baina partaidetza hori bideratzeko, ezinbestekoa da familiek hurbil sentitzea eskola; ongi ezagutzea eskola eta eskolaren parte direla sentitzea. Horregatik ahalegintzen gara Eskola Txikien garrantzia nabarmentzen, ongi baino hobeto baitakigu eskola horietako askok bizirik irauteko erabakigarria izan dela familiek beste hezkuntza eta gizarte eragile batzuekin batera (irakasleak, udalak, etab.) bere garaian egindako borroka.

Horrenbestez, garrantzi handikoa da komunitateak Eskola Txikien eredua babestea: beharrezkoa iruditzen zaigulako herri bakoitzak bere eskola izatea.

EHIGE eta BAIKARAren izenean, beraz, gure aitortza eta babes osoa adierazi nahi diegu Eskola Txikiei, eta guztiei dei egiten dizuegu ekainaren 14ko jaian parte har dezazuen.

MIKEL GOÑI, ESKOLA TXIKIETAKO IRAKASLEEN KOORDINATZAILEA

Eskola Txikien Festaren ibilbidea luzea da, aurretik ere esan da hori. Horregatik, azken ikasturteetan Festaren izaeraren inguruko hausnarketa sakonean murgildu gara Eskola Txikietako guraso eta irakasleak. Hori dela eta, hasteko, esker ona adierazi nahi diet Gabiriar guztiei hausnarketa momentu horren erdi erdian beren burua kokatzen asmatu dutelako. Badakigu ez dela erraza izan, baina, uste dugu, etorkizuneko bidea errazten lagunduko digula. Beraz, eskerrik asko festa bera antolatzeagatik eta hausnarketa prozesuaren barnean erakutsi duzuen jarrerarengatik.





PILAR MARITXALAR, MAKILARI GURASO ELKARTEA

Aurtengo festari 10:30etan emango diogu hasiera aurkezpen ekitaldiarekin plazan. Ondorengo tarte 4 gune nagusitan banatu dugu. Ikasleak taldekatuko ditugu errotatuz denetatik igaro daitezten: Bi gunetan herriko zenbait baliabide ezagut arazi nahi izan ditugu. Horregatik festan zenbait lanbide azalduko dizkigute: perragintza, abarkagintza, gaztagintza, buztingintza eta lorezaintza. Horretaz gain bola eta tokan jolasteko aukera izango dute. Beste bi guneak ekintza berriagoz osatuta daude: puzgarriak, eta aurpegi eta txapa margoketak.

Ordubietan aurrez eskatu dutenek bazkaria izango dute atzeko karpan. Ogitartekoak eta plater konbinatuak jateko aukera ere izango da antolatuko dugun tabernan, elkarteetan eta herriko tabernetan. Etxetik ekartzen dutenezat ere mahaiak prestatzen saiatuko gara.

Arratsaldean, adin guztietako jendeari erantzun nahian, Zirkabareta zirko ikuskizuna izango dugu frontoian eta festak "apar festarekin jarraituko du. Bertan parte hartzeko erropak eta oinetako egokiak ekartzea gomendatzen dugu.

Festari amaiera emateko "Salda badago" taldearekin nahiko dantza plazan.

Egunean zehar autobus zerbitzua izango da Irizarko errotondatik gora eta behera. Baimendutako kotxeak bakarrik etorri ahal izango dira herriraino.

Eskerrak eman nahi dizkiegu festaren prestaketan parte hartu duten babesle eta laguntzaile guztiei eta eguraldia lagun izan dezagula.

Ikasleak: Ekainaren 14an, Eskola Txiki guztiak Gabiriara.

Gaurko aurkezpena bukatzeko Balentzategi eskolakoek Eskola Txikien abestia dantzatuko dugu.

Eskola txikiak bizirik Gabiria 2015

